

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2016/17

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25933 - Komunitaterako Gizarte Langintza

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau Gizarte Langintzaren Oinarriak, Metodologiak, Teoriak eta Teknikak deritzon A Moduloaren parte da. Irakasgai honen helburuak dira: a) komunitatearen azterketa Gizarte Langintzaren esku-hartzearen objektu eta subjektu gisa; b) Gizarte Langintza kokatzea horren esku-hartzearen testuinguru zabalenean; c) esku-hartze komunitarioaren prozedura metodologikoaren ezagutza; eta d) esku-hartze komunitarioaren esperientzia desberdinei hurbilpena egitea, bereziki ikasleriaren testuinguru hurbilean ematen direnak.

Horretarako, proposatutako edukiek Gizarte Langintzaren dimentsio komunitarioa jorratzen dute banakako-familiko eta taldekako dimentsioaren osagarri den heinean. Sakontze kontzeptual baten ostean, Komunitateko Gizarte Langintza bere jatorrian dituen eta bere esku-hartze eredu teorikoen atzean dauden pentsamendu korrante ezberdinak identifikatzen dira. Fundamentazio teoriko honen bidez Komunitateko Gizarte Langintzaren objektua eta ezaugarriak zehaztuko dira; horien artean ardatz nagusiak izango dira partaidetza, elkartegintza, boluntarioria eta gizarte mugimenduen ekintza. Azkenik, Komunitateko Gizarte Langintza berezkoak dituen prozedura metodologikoak lantzen dira, baita ikuspegi komunitariotik gizarte esku-hartze proiektuen berezitasuna ere.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Irakasgaiak moduluko honako kompetentziari erantzuten dio: Gizarte Langintzarako esku-hartze metodo eta teknikak aplikatzea, zeintzuen bidez pertsona, familia, talde, erakunde eta komunitateak lagundu haiek erabakiak har ditzaten, ahalduntze prozesuak gara ditzaten, banakako eta kolektiboak den promoziorako, gizarte partaidetza sustatzeko eta sare sozialak areagotzeko. Era berean, honako modulu irakaskuntza emaitzarekin lotuta dago: Gizarte Langintzaren metodologia eta teknikak ezagutu eta aplikatzen ditu banakako, familia, talde, komunitate eta erakundeekin, esku-hartze proiektuak diseinatuz eta ebaluatuz.

Horrekin batera, irakasgaiaren kompetentzia zehatzak hurrengoak dira:

- Gizarte Langintzaren banakako-famili eta taldekako dimentsioek esparru kolektiboarekin duten lotura eta elkartruke ulertzea.
- Esku-hartze komunitarioaren oinarri teoriko eta metodologikoak ezagutzea.
- Esku-hartze komunitarioa ematen den testuinguruaren konplexutasun eta izaera gatazkatsuari buruzko hausnarketa kritikoa egitea.
- Komunitateko Gizarte Langintzaren objektua, subjektua eta helburuak identifikatzea, baita horren funtzioak esku-hartze eremu honetan ere.
- Komunitate mailan gizarte ehundura, partaidetza, prebentzioa, promozioa eta sareak indartzeko tresnak bereganatzea.
- Parte-hartzailea den diagnostiko komunitarioa egiten ikastea, ahalduntze personal eta kolektibo gisa.
- Esku-hartze komunitarioan disziplina anitzen arteko eta sare lanaren garrantzia ulertzea, baita gizarteratzea helburu duten genero, kulturartekotasun eta landa ikuspegiak ere.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

ANECAk baieztatutako titulazioaren memorian zehazten denari jarraituz, irakasgaiak honako eduki teoriko-praktikoak lantzen ditu:

1go gaia. Komunitateko Gizarte Langintzari sarrera

2. gaia. Komunitateko Gizarte Langintzaren oinarri teorikoak

- Kontzeptualizazioa
- Ikuspegi historia
- Esku-hartze komunitarioaren eredu teorikoak
- Karakterizazioa eta objektua

3. gaia. Gizarte Langintzaren dimentsio komunitarioa

- Gizarte partaideza
- Gizarte mugimenduak
- Elkartegintza
- Boluntarioria

4. gaia. Metodologia eta aplikazioa

- Prozedura metodologikoa
- Gizarte esku-hartze proiektuak ikuspegi komunitariotik

Irakasgaiak zeharka lantzen ditu genero ikuspegia, giza ikusbide ikuspegia, gizarte eta ingurugiro sostengarritasuna eta parte-hartzea, gizarte proiektuen formulazioaren berezko edukiak diren heinean.

## METODOLOGIA

Irakasgai honen metodologiak hiru irakaskuntza ekintza mota jarraitzen ditu:

### a) Sesio teorikoak (45 ordu guztira, astero 3)

Sesio hauetan irakasgaiaren eduki teoriko nagusien azalpena egingo da, horretarako dokumentuen irakurketan, irakurgaia horien inguruko hausnarketetan eta aukeraturako bideo laburren azterketan oinarrituz. Sesioetan egingo diren irakurketez gain, ikasleriak gaia bakoitzeko irakasleak proposatutako artikulua edo liburu kapitulu baten azterketa laburra banaka egingo du.

### b) Sesio praktikoak (15 ordu guztira, astero 1)

Sesio hauek irakasgaiaren landuko diren eduki teorikoen aplikazioa egitea izango dute helburu. Modu horretan ikasleriari Komunitateko Gizarte Langintzaren prozedura metodologikoen gauzatzerako orientazioa emango zaio. Bereziki, komunitate jakin baten sakoneko azterketa egingo da, eta horren ondoriozko gizarte diagnostiko baten garapena. Diagnostiko honen fundamentazioa informazioa eskuratzeko gizarte ikerketarako hiru tresna ezberdinen aplikazioan oinarrituko da: behaketa parte-hartzailea, informante-gakoei eginiko elkarrizketak eta dokumentazioaren bilaketa eta azterketa. Ikasketa eta diagnostiko komunitario hau bost pertsonen osotutako lan taldeetan egingo da.

### c) Tutoretzak

Tutoretzak ikasleriaren irakaskuntza prozesua laguntzeko eta jarraitzeko tresna izango dira, bai banaka bai taldeka.

Azkenik, derrigorrezko irakurketa materiala E-Gela espazio birtualean egongo da eskuragarri.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	67,5		22,5						

### Legenda:

M: Maistrala  
S: Minteoria  
GA: Gelako d.  
GL: Laborategiko d.  
GO: Ordenagailuko d.  
GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra  
TI: Tailer Ind.  
GCA: Landa d.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia %
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) %

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai honek duen ebaluazio sistema mistoa da.

Alde batetik, ikasleak bost pertsonetako taldeetan eta irakasgai amaitzearekin batera komunitate baten diagnostikoa entregatu behar izango dute, lan honek irakaslearen orientazioa eta jarraipena izango duelarik gelako praktiken bidez. Sistema jarrai honek talde lana errazteaz gain, gelako praktiketan diagnostikoaren osotze prozesuaren segimendua eta laguntza ahalbidetzen du, baita taldearen eta irakaslearen partetik feed-back-a ere. Diagnostiko hau entregatzeko azken eguna azterketa data ofiziala izango da.

Bestalde, ikasleak banakako azken froga idatzia egin behar izango du irakasgaiaren eduki teorikoen ingurukoa eta eskoletan landutakoaren arabera. Froga idatzia azterketa data ofizialean burutuko da.

Froga idatzia egin ahal izateko talde lana entregatua egon behar da. Gainera, kalifikazio orokorraren batz-bestekoa egiteko beharrezkoa izanda bai talde lana bai froga idatzia gaitzea.

## KALIFIKAZIO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

a) Diagnostiko komunitario bat taldeka egitea: %60

Baloratuko da:

- Gizarte diagnostiko baten atal guztien barneratze eta garapena, erabilitako prozedura metodologikoa barne.
- Edukinen deskripzio eta zehaztaperen maila.
- Lortutako koherentzia eta sakontasun maila.

b) Idatzizko froga banaka egitea: %40

Baloratuko da:

- Garatutako edukinen menperatze edo barneratzea.
- Argitasuna, ortografia zuzenketa eta koherentzia.
- Erabilitako lengoiaren egokitasuna.

#### AMAIERAKO EBALUAZIOA ESKATZEKO PROZEDURA

Azken ebaluazioaren sistema eskatzeko prozedura: Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. Jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako &#8220;Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua&#8221; dela medio (ikus web gunea).

Amaierako ebaluazio sisteman parte hartzen duen ikasleagoak kompetentzia berdinak akreditatu behar izango dituzenez, amaierako ebaluazioa diagnostiko komunitario baten entregatzea eta azterketa idatzia egitean datza, biak azterketa data ofizialean. Froga bi hauek %60 eta %40eko ehuneko kalifikazioa izango dute hurrenez hurren, eta aurrerago azaldu diren balorazio irizpide berdinek aplikatuko zaizkie.

#### DEIALDIARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Deialdiari uko egiteko errenuntzia idatzi bat aurkeztu beharko zaio irakasleari, azterketa epea hasi baino 10 egun lehenago behintzat:

Idatzia aurkezten bada, kalifikazioa: EZ AURKEZTUA&#8232;.

Idatzia ez bada aurkezten, kalifikazioa: SUSPENTSO.

#### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez ohiko deialdian jarraitutako ebaluazio sistema ohiko deialdirako zehaztutako berdina izango da.

Ez ohiko deialdiari uko egiteko errenuntzia idatzi bat aurkeztu beharko zaio irakasleari, azterketa epea hasi baino 10 egun lehenago behintzat:

Idatzia aurkezten bada, kalifikazioa: EZ AURKEZTUA.&#8232;

Idatzia ez bada aurkezten, kalifikazioa: SUSPENTSO.

#### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ikasmateriala: BERASALUZE CORREA, Ainhoa, Irantzu MENDIA AZKUE eta Edurne ARANGUREN VIGO (2011), Komunitateko gizarte-langintzaren oinarri teorikoak, UPV/EHU.

#### BIBLIOGRAFIA

##### Oinarrizko bibliografia

ANDER-EGG, Ezequiel (2000): Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Lumen, Buenos Aires.

BARBERO, Josep Manuel eta Ferrán CORTÉS (2005): Trabajo Comunitario, organización y desarrollo social, Alianza, Colección Política Social/Servicios Sociales, Madrid.

LILLO, Nieves eta Elena ROSELLO (2001): Manual para el Trabajo Social Comunitario, Narcea, Madrid.

MARCHIONI, Marco (2004), La acción social en y con la comunidad, Certeza, Zaragoza.

MARTÍ, Joel eta Óscar REBOLLO (2005): Participación y desarrollo comunitario en medio urbano: experiencias y reflexiones, IEPALA, Madrid.

NAVARRO, Silvia (2010) (2ª ed.): Redes Sociales y construcción comunitaria. Creando (con)textos para una acción social ecológica, CCS, Colección Intervención Social, Madrid.

##### Gehiago sakontzeko bibliografia

DEL RIO ALDASORO, Jesús (2003): Esku-hartze komunitarioen metodologia, Eusko Jaularitza, Vitoria-Gasteiz.

FERNÁNDEZ GARCÍA, Tomás eta Antonio LÓPEZ PELÁEZ (2008): Trabajo Social Comunitario: afrontando juntos los desafíos del siglo XXI, Alianza, Colección Política Social/Servicios Sociales, Madrid.

MALAGÓN BERNAL, José Luis eta José Luis SARASOLA SÁNCHEZ-SERRANO (2006) (2ª ed.): Fundamentos del Trabajo Social Comunitario. Bases teóricas y metodológicas para la intervención comunitaria, Aconcagua Libros, Sevilla.

MANZANOS, César (coord.) (2012): Mediación y participación en conflictos para transformar la sociedad (comunitaria, política, económica, familiar y penal), Ponencias de Congreso, Escuela Universitaria de Trabajo Social (UPV/EHU), Vitoria-Gasteiz, 8 y 9 de noviembre de 2012, Ed. Ikusbide.

MARTÍNEZ HERNÁNDEZ, Eva eta Lucía PEÑA MARTÍNEZ (coords.) (2010): REDefiniendo el trabajo comunitario, Ponencias de la III Jornada de Trabajo Social, Escuela Universitaria de Trabajo Social (UPV/EHU), Vitoria-Gasteiz, 25 de marzo de 2010.

ROBERTIS, Cristina eta Henri PASCAL (1994): La intervención colectiva en trabajo social, El Ateneo, Buenos Aires.

SAEZ, M. eta D. Muñoz (coords.): Nuestros barrios, nuestras luchas. Experiencias de intervención en barrios periféricos, Zambra/Baladre y La Burbuja, Valencia.

SUSMOA (2009): Pisando charcos. Una experiencia de trabajo comunitario en barrios, Zambra/Baladre, Málaga.

#### **Aldizkariak**

<http://www.entornosocial.es>

<http://www.intervencionsocial.com>

<http://revistas.ucm.es/index.php/CUTS>

<http://isw.sagepub.com/>

<http://www.zerbitzuan.net/>

[http://www.tscat.cat/index.php?option=com\\_content&view=article&id=68&Itemid=168](http://www.tscat.cat/index.php?option=com_content&view=article&id=68&Itemid=168)

<http://rua.ua.es/dspace/handle/10045/5269>

[http://www.caritas.es/publicaciones\\_Info.aspx?Id=351](http://www.caritas.es/publicaciones_Info.aspx?Id=351)

[http://www.caritas.es/Publicaciones\\_Info.aspx?Id=336](http://www.caritas.es/Publicaciones_Info.aspx?Id=336)

<http://www.uclm.es/bits/sumario/sumario.asp>

[http://www.cgtrabajosocial.com/consejo/revista\\_inicio](http://www.cgtrabajosocial.com/consejo/revista_inicio)

#### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.cgtrabajosocial.com/>

<http://ifsw.org/>

<http://www.tsred.org>

<http://institutomm.ning.com/>

<http://www.socialworkonline.com/>

<http://pasionporeltrabajosocial.blogspot.com.es/>

<http://www.clinicalsocialwork.com>

<http://www.socialworkpolicy.org/>

<http://www.nisw.org.uk/>

<http://www.plancomunitario.org/CARATULA%20CASTELLANO.html>

<http://www.partehartuz.org/prin.htm>

#### **OHARRAK**